+

Pabetik, 1949 gko. Loreillaren 31 gn.

Lafitte apaiz jaun agurgarriyari,

Uztaritz'a.

Apaiz jaun maitagarriyoi:

Onekin batian dijuakizu Biarritz-eko Batzarraren Liburuba egiten danerako nere lantxua. Zerbait okerrik ikusiko bazeniyo, mesedez egidazu kartatxo bat, ia garaiz zuzentzen dedan.

Bigar bazkalonduan Gipuzkoa-ra juatekua naiz, illabete inguruko asmuan.

Jainkuak bedeinka zaitzala, ta zure lanak ere bedeinka ditzala. Emen dezu zure zerbitzurako

Zataraindar Anbrosi

Beti zure zerbitzari

*Ambrosio de Zatarain y Echeveste*

*Zubieta 40 - 2.º*
*Teléfono 21236*
*San Sebastián*

Hemengo luterianoek igorri paperetan
ikusi ditudan gezurren ondarrean zu-
re izena hatzeman dut. Hortakotz ko-
piatu ta bidaltzen dautzut.

DR. ING. AMBROSIO DE ZATARAIN
ZUBIETA, 40 - 2.°
SAN SEBASTIAN
(GUIPUZCOA)

Donosti'tik, 1975.2.2

Uztaritzera

Lafitte jaun kalonjeari:

Agurr!

"Euskerazaleak" deitu bazkunekoek López Mendizabal'darr Isaak jaunari omenaldi bat egitea erabaki dugu. Hortarakotz' jaun horrek egin lanak aipatuz idazki labur batzu egitea nahi ginuke.

Lekuona aphez jaunaren aholkuz' "Lopez Mendizabal'en gramatikari buruzko lanak" aipatzeko autatu dugun gizona zu zare. Eginen zinukea?

Orri eta erdi, makinaz bi tarte utzirik' beharko ginituke, otsailaren ondarrerako.

Othoi, baiezkoa naiz ezezkoa emanez erantzun niri, lan hori egiterik ezpazinu bertze norbaiten bila hasi beharko baikinuke.

Dena den' barkhatu eta mileskerr bihotz-bihotzez.

Hemen nuzu bethi zure zerbitzari

Zatarain'darr Anbrosi